

# Oinarrizko Konpetentzien eskuratze-mailari buruzko txostena egiteko orientazioak

## LEHEN HEZKUNTZA



OINARRIZKO KONPETENTZIEN ESKURATZE-MAILARI  
BURUZKO TXOSTENA EGITEKO  
ORIENTAZIOAK

LEHEN HEZKUNTZA

CURRICULUM GARAPENAREN TALDEA



## SARRERA

Abenduaren [22ko 236/2015 Dekretuak](#), Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak (EHAA, 2016-01-15), apustu garbia egin du 2007ko Hezkuntzaren Lege Organikoa martxan jarri zenetik gure Erkidegoan txertatu zen kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredua indartzeko.

Ildo horretan, Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruak aurreratu egiten ditu urriaren 16ko 175/2007 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa) adierazitako oinarrizko kompetentzien planteamenduan, aipatutako 2020 Esparru Europarrarekin bat, XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak –Jacques Delors (1996), DeSeCo/ELGA (2002) eta Tuning (2003) dira buruak– UNESCOri egindako txosteneko proposamenak.

Oinarrizko kompetentziak txertatuta, irakasleei sortu zaien zalantzarako bat horiek nola ebaluatu behar diren izan da. Horretarako, beharrezkoa da hala ebaluazioaren xedea nola ebaluazioaren prozedura birplanteatzea curriculum-dekretuaren 46.7 artikuluan adierazitako agindua bete ahal izateko: *«Ikasturte amaieran, azken ebaluazioari buruzkoaren ondorengo txostenean, aurreko lerrokadan aipatutakoaz gain, oinarrizko kompetentzien eskuratzeko-maila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko erabakia jakinaraziko dira.»*

Hezkuntza Sailak badaki oinarrizko kompetentziaren ikuspuntutik ebaluatzeak zailtasunak dakartzala eta irakasleek partekatzen dituzten eta, ahal de heinean, oinarrizko kompetentzien lorpen-maila adierazten duten hainbat adierazle behagarri definitu eta zehaztu behar direla.

Horregatik, eranskin hau laguntzeko tresna izango da, ikasturtearen amaierako ebaluazioetan irakasleen erabakiak orientatzeko. Eranskin honen xedea da, batetik, erraztea irakasleek egin behar duten lana erreferentzia-esparru koherente bat eta adierazle komun batzuk eskainiz, hezkuntza-etapa desberdinetako ebaluazio-araudian jasotako oinarrizko kompetentzien ebaluazioari buruzko alderdiak aplikatu eta bete behar dituztenean; eta, bestetik, erraztea, halaber, ikastetxeetan erabaki pedagogikoak hartzea.

## **AURKIBIDEA**

1. Deskribapena
2. Oinarrizko konpetentzien definizioa
3. Oinarrizko konpetentzien balorazioa
4. Oinarrizko konpetentziak baloratzeko adierazleak:
  - 4.1. Adierazleak formulatzeko kontuan hartu diren irizpideak
  - 4.2. Ebaluazio-adierazleak
5. Oinarrizko konpetentzien eskuratzeko-maila baloratzeko prozedura:
  - 5.1. Nola identifikatu lorpen-maila
  - 5.2. Nola jardun ebaluazio-saioan

## **1. DESKRIBAPENA**

Orientazio hauen helburua da ikastetxeei erreferentzia-esparru bat eskaintzea, curriculumarekin bat, ikasleen oinarrizko konpetentzien garapen- eta eskuratze-maila baloratzeko eta dagokien txostena egiteko.

2. atalak Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren oinarrizko konpetentzien karakterizazioa jasotzen du.

3. atalak zenbait gako ematen ditu gaur egungo konpetentzien esparruak ikasleen ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuan dituen ondorioen inguruan.

4. atalean oinarrizko konpetentzia bakoitza baloratzeko adierazleen proposamen bat dago. Adierazle horien iturri dira arlo guztietako curriculum ofizialak.


Azkenik, 5. atalak oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila baloratzeko prozedura orientagarri bat eskaintzen digu.

## **2. KONPETENTZIEN DEFINIZIOA**

Oinarrizko konpetentziak, oro har, ezinbesteko ikaskuntzak dira XXI. mendean bizitza sozialean baztertuta izateko arriskurik gabe moldatzeko. Bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak dira, baina komeni da bereiztea eta erlazionatzea. Bereiztea; izan ere, oinarrizko zehar-konpetentziak soilik ikasi eta ebalua daitezke oinarrizko diziplina-konpetentziak garatzen dituzten arloetako edukiak ikasteko prozesuan integratuta. Eta horrekin batera, horiek erlazionatu egin behar dira, oinarrizko zehar-konpetentzien bitartekaritza behar delako oinarrizko diziplina-konpetentziak eskuratzeko.

Oinarrizko zehar-konpetentzia deritze bizitzaren esparru eta egoera guztietan (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) arazo-egoerak eraginkortasunez konpontzeko behar diren horiei, hala diziplina-arlo guztiekin erlazionatutako egoeretan nola eguneroko bizitzaren egoeretan. Arlo guztietan batera lan eginez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira.

Oinarrizko diziplina-konpetentziak bizitzako esparru eta egoera batzuekin zerikusia duten arazoak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) eraginkortasunez konpontzeko behar dira. Horretarako, diziplina-arlo batekin lotutako berariazko baliabideak erabili behar dira.



### 3. OINARRIZKO KONPETENTZIEN BALORAZIOA

Hezkuntza-mundua paradigma-aldaketa batean murgilduta dago; hala, edukiak adierazi eta eskuratzea ardatz duen hezkuntzatik oinarrian kompetentziak garatzen dituen hezkuntzarantz ari da aldatzen.

Aldaketa horrek garrantzi erabakigarria du Oinarrizko Hezkuntzaren funtzioa eta zentzua bideratzerakoan. Etapa honetan elementu nagusi gisa oinarrizko kompetentziak txertatzeak haxe eskatzen du: etaparen amaierako ezinbesteko apendizaiak zein diren birplanteatzea, hau da, ikasleei ondorengo etapetan ikasketetan jarraitzea bermatuko dieten ezinbesteko apendizaiak zein diren birplanteatzea.

Era berean, konpetentzien garapenean oinarritutako ikuspegiak ondorio garrantzitsuak ditu irakasle-hezitzaileen lana planifikatzean, ikasteko eta irakasteko jarduerak antolatzean eta ikasleen lorpenak ebaluatzean.

Hezkuntza Sailburuaren Aginduak garatu egiten du abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren VII. kapituluko bigarren atalean ikasleen ebaluazioari buruz adierazitakoa. Agindu horrek 46. kapituluan hau ezartzen du: *"7.- Ikasturte bakoitzeko ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, edo hala komeni denean, tutoreak ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren txostena egin eta haren gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie. Txosten horretan jasoko dira arlo edo ikasgai bakoitzeko kalifikazioak, bai eta eskola-errendimenduari, gizarte-heziketako integrazioari eta, hala dagokionean, laguntza- eta indartze-neurri orokorreari buruzko informazioa ere. Ikasturte amaieran, azken ebaluazioaren ondorengo txostenean agertuko da, aurreko lerrokadan aipatutakoaz gain, oinarritzko konpetentzien eskuratze-maila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko edo ez igotzeko erabakia. Gainera, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetan, banakako ebaluazioaren emaitza sartuko da."*

Ebaluazioari lotutako agindu horrek ez du esan nahi ikasleen bi ebaluazio bereizi egin behar direnik: bata, bata arloen ikaste-prozesuan oinarritua; eta, bestea, oinarritzko konpetentzien garapenean. Lehen Hezkuntzan, arloen ebaluazio-irizpideak dira ikasleak ebaluatzeko erreferente argiak, eta oinarritzko konpetentziak ebaluatu ahal izateko adierazleak ere badituzte.

Halere, hezkuntza-ikuspegi batetik bestera igarotzeko une honetan, badirudi beharrezkoa dela ikustaraztea oinarritzko konpetentziak, bereziki oinarritzko zehar-konpetentziak, ebaluatzea garrantzitsua dela ikasturtearen amaierako ebaluazioan.

Oinarritzko konpetentzien ebaluazioa ez da arloen edukien ebaluazioa bezain ohikoa. Gainera, konpetentzien ebaluazioa maila bakoitzeko irakasleek elkarrekin egin behar dute. Konpetentzien eskuratze-maila baloratzea ikasleek eskuratutako ezagutza egiaztatzea baino gehiago da. Konpetentzia bat eskuratu izanaren ebidentziek arazo-egoera esanguratsu bat eskatzen dute. Egoera horretan ikusiko da ezagutza aktibatu dela arazo-egoerei irtenbidea emateko baliatutako estrategia eta jarrerekin.

Lehen Hezkuntzako etaparen amaieran eskola-orientaziorako txosten indibiduala egiteko adierazleen zerrenda bat behar da. Hala, adierazle horien bidez, irakasleek elkarrekin erabaki ahal izango dute oinarritzko zehar-konpetentzien ebaluazioari buruz, eta, halaber, oinarritzko diziplina-konpetentzien ebaluazioa egin ahal izango dute dagokien arloaren kalifikazioak integratuz.

Txosten hori egiteak, bestalde, aukera emango du:

- Lehen Hezkuntza amaitzean ikasleen garapenari buruzko balorazio globalagoa egiteko. Izan ere, oinarrizko kompetentziei esker, ikasleek ikasitakoa balora daiteke ez soilik ikuspuntu akademikotik, baita kontuan izanda beste alor batzuetako egoerak ere: pertsonala, soziala eta lanekoa.
- Ebaluazioan benetan beharrezkoak diren apendizaiari lehentasuna emateko, bai etapa amaitzeko, bai ikasten ondo jarraitzeko. Oinarrizko kompetentziak era egokian garatzeko ikaskuntza horiek, hein handi batean, batez ere instrumentalak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak izango dira.
- Nabarmentzeko oinarrizko zehar-kompetentzien garapenari arlo guztiek egiten dioten ekarpena eta ikusarazteko irakasle-taldeak batera lan egin behar duela oinarrizko kompetentzien inguruko lana planifikatzen eta hari buruzko erabakiak hartzen.
- Irakasle-hezitzaile taldeak elkarrekin aurrera egin ahal izateko kompetentziak eta «eginez» ikastea sustatzen duten proposamen metodologikoak garatzen, denek batera ikaskuntzarako egoerak, testuinguruak eta jarduerak hautatuz.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren eta Programazio Didaktikoen bidez, diziplinartekotasuna eta ikaskuntzaren tratamendu globala sustatzen duen curriculum integratzailea garatzeko, arloen hermetikotasuna gaindituz.

Horregatik guztiagatik, Lehen Hezkuntzako etaparen amaieran oinarrizko kompetentzien lorpen-mailari buruzko eskola-orientaziorako txosten individuala egitea hobekuntza-elementutzat jo behar da, bai ikasleen apendizaiari hobeto egokitzen zaion ebaluazioa egiteko, bai irakaskuntzari buruz eta hura hobetzeko moduei buruz gogoeta egiteko.

## **4. OINARRIZKO KOMPETENTZIAK BALORATZEKO ADIERAZLEAK**

### **4.1. Adierazleak formulatzeko kontuan hartu diren irizpideak**

Dokumentu honetan jasotako lorpen-adierazleak etapako arlo guztien curriculumaren analisitik sortu dira. Curriculum bakoitzean, arloa ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak erreferente dira kompetentziak ebaluatzeko. Horregatik, lorpen-adierazleak lantzeko erabili dira.

Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak aztertu ondoren, adierazleen zerrenda idatzi da, kompetentziaz kompetentzia, era globalean ikusteko bakoitzaren



eskuratze-mailak zer ezaugarri biltzen dituen. Orokortu daitezkeen eta arlo guztietara eraman daitezkeen adierazleak formulatu nahi izan dira. Era beran, kontuan izan dira konpetentzia bakoitzaren osagai guztiak, osotasuna ebaluatu ahal izateko. Hori dela eta, aukeratutako adierazleek era kualitatiboan deskribatzen dituzte, oinarrizko konpetentzietan ari garela, ikasleek menderatu behar dituzten alderdiak.

## **4.2. Ebaluazio-adierazleak**

### **4.2.1. Oinarrizko zehar-konpetentziak**

#### **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.**

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

- Ahozko eta idatzizko testuen helburua, zentzu orokorra eta ideia nagusia bereizi eta ulertzen ditu.
- Baliabide eta aplikazio digitalak erabiltzen ditu komunikatzeko.
- Ahozko eta idatzizko testuak era egokian eta zuzen sortzen ditu.
- Bere iritziak argudioen bidez adierazten ditu.
- Irtenbideak emateko erabilitako estrategiak azaltzen ditu ahoz eta idatziz.
- Jasotako informazioak hainbat euskarritan eta hitzezko zein hitzik gabeko baliabideekin adierazten ditu.
- Sinboloak, grafikoak, ikur konbentzioak interpretatzen eta erabiltzen ditu.
- Hitzez, idatziz eta hitzik gabeko beste lengoaia batzuek baliatuta adierazten ditu ideiak, emozioak eta sentimenduak.
- Gero eta adierazpen egokiagoak egiten ditu komunikazio-egoeretan.

#### **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia**

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeke.

- Hainbat iturritan (inprimatuak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) bilatzen du informazioa.
- Informazio egokia (inprimatua, ahozkoa, ikus-entzunezkoa, digitala...) aukeratzen du aldez aurretik ezarritako helburuak betetzeko.

- Informazioa (inprimatua, ahozkoa, ikus-entzunezkoa, digitala...) gorde eta erregistratzen du zenbait baliabide (eskemak, gidoiak, kontzeptu-mapak) erabiliz.
- Informazio-iturrien fidagarritasunaz gogoeta egiten du.
- Informazioa ulertzen du (atalak identifikatzen ditu, antzekotasunak eta ezberdintasunak alderatzen ditu, ezaugarri komunak arabera sailkatzen ditu...).
- Hainbat teknika erabiltzen ditu informazioa ulertzeko (azpimarratzea, eskemak, kontzeptuzko mapak, denbora lerroak...).
- Hautatutako informazioa ebaluatzen du argudioak eta arrazoibideak erabiliz.
- Ideiak berregiten ditu sormen-teknikak erabiliz (ideia jasa, buru-mapak, diagramak...).
- Egoera edo arazo berriak ebatzen eta konpontzen ditu ikasitakoa baliatuz eta estrategiak erabiliz.
- Jarrera positiboa erakusten du Ikaskuntza berrien aurrean.

### **Elkarbizitzarako kompetentzia**

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasunez parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak eta, horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion ongirako.

- Gatazka-egoeren aurrean jarrera solidarioa agertzen du eta estrategia konstruktiboak eta elkarriketa erabiltzen ditu.
- Konponbideak bilatzeko funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak errespetatzen ditu.
- Informazioa eta zereginak partekatzen ditu, besteei adi entzun eta besteek esandakoa kontuan hartzen du.
- Jarrera positiboa erakusten du, bere gain hartzen du taldean dagokion lana eta arduratsua da.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu, aktiboki eta errespetu osoz entzuten die besteei eta galdera egokiak egiten ditu.
- Kritika arrazoitua onartzen du eta gainerakoen azalpenak onartzen ditu.
- Ikasleen eskubideak, betebeharrak eta bizikidetzaren arauak errespetatzen ditu.
- Taldean giro ona, elkartasuna eta konfiantza- harremanak ezartzen ditu bai taldean eta lankidetzan aritzen denean, baita ingurune birtualetan ere.
- Harreman integratzaileak ditu ikaskideekin: besteekiko errespetua (kultura-, etnia-, arraza-desberdinak, hizkuntza desberdinak, desgaitasunak dituztenak, genero-berdintasuna...) erakusten du,

pertsona guztiekin lan egitea onartzen du eta beste pentsamolde batzuekiko aurreiritziak baztertzen saiatzen da.

### **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia**

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea da testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

- Proiektuak, ikerketak eta ekintzak proposatu eta garatzen ditu erronkei aurre egiteko.
- Bere errealitateari lotutako informazioa erabiltzen du planifikatzeko.
- Proiektu bat garatzerakoan, zailtasunak identifikatzen ditu eta ekoizpenetan erabaki egokiak hartzen ditu.
- Bere proiektuen emaitzak adierazten ditu.
- Bere lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartzen du.
- Proiektuen arrakasta-maila ebaluatzen du.
- Prozesuan, ez da huts egiten eta akatsen beldur ezta berriro hastearen beldur ere.

### **Norbera izaten ikasteko kompetentzia**

Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

- Hitzezko eta ez hitzezko lengoaia komunikazio-egoeraren arabera egokitzen du.
- Konfiantza du bere buruan eta bere trebetasun eta mugetara egokitzen du bere jarduna.
- Bere ikasketa-prozesua ebaluatzen du, eta hobeto ikasten laguntzen dioten zenbait baliabide eta estrategia identifikatzen ditu eta erabiltzen ditu.
- Huts egitea ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzen du.
- Gatazkan dauden aldean emozioak, sentimenduak, pentsamendu posibleak eta ikuspuntuak aztertzen ditu.
- Jarrera irekia agertzen du eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzen ditu.
- Banakako lanean arduraz, autonomiaz eta modu aktiboan jarduten du.
- Eginaren ekinez sortutako produktuek dakarten satisfazioa bizi du.
- Bere jarduera eta taldearena ebaluatzen ditu.
- Bere egoera fisikoaren eta osasunaren gaineko interesa erakusten du eta gorputz-jarrera eta keinuak kontrolatzen ditu.

## **4.2.2. Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak**

### **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia**

Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.

- Ulertzen ditu bere esperientziatik hurbil dauden ahozko eta ikus-entzunezko testuak, hainbat euskarritan emanak, erabilera-eremu eta genero askotarikoak.
- Ulertzen ditu bere esperientziatik hurbil dauden erabilera-eremu eta genero askotariko testu idatziak, hainbat euskarritan emanak.
- Sortzen ditu hainbat euskarritan, modu gidatuan, erabilera-eremu eta genero askotariko ahozko testu xumeak, komunikazio-egoerari egokituak.
- Parte hartzen du gelako elkarrizketetan eta betetzen ditu gizarte-komunikaziorako oinarrizko arauak.
- Sortzen ditu, modu gidatuan, idatzizko testu xumeak, hainbat euskarritan, komunikazio-egoerari egokituak, erabilera-eremu eta genero askotarikoak, eta hizkuntzaren arauak betetzen ditu.
- Baliatzen ditu hizkuntza-sistemaren oinarrizko ezagutzak, testuak hobeto ulertzeko eta idazteko.
- Irakurri eta entzuten ditu, norberaren plazererako, etaparako egokiak diren haur eta gazte literaturako testuak, ahozkoak eta idatziak.
- Ezagutu eta errespetatu egiten du inguruan duen hizkuntza aniztasuna.
- Hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera eta jokabide positiboak ditu.

### **Matematikarako kompetentzia**

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrezanean dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen moduak eta tresnak erabilia.

- Zenbaki mota desberdinen esanahia ulertzen du testu mota anitzetan (fakturak, foiletoak, beherapenak...).
- Estrategia desberdinak erabiltzen ditu kalkulu zehatza zein gutxi gorabeherakoak egiteko eta eragiketa errazen emaitzak estimatzen ditu.
- Oinarrizko eragiketak (batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa) burutzen ditu zenbaki osoa zein hamartarrekin, algoritmo akademikoez baliaturik.

- Oinarrizko zatiki, zenbaki hamartar eta portzentajeen arteko baliokidetasunak erabiltzen ditu ( $1/2$ ; 0,5; % 50 eta  $1/4$ ; 0,25; % 25...), eta bizitza gertuko problema errazak ebazten ditu.
- Kalkulagailua eta software egokiak erabiltzen ditu eragiteko, probatzeko, ikertzeko eta problemak ebazteko.
- Neurketarekin erlazioa duten problemak ebazten ditu (SMH, denbora, txanpon-sistemak...) estrategia eta unitate egokiak erabiliz.
- Egunerokotasunean orientazioa eta adierazpen espaziala erabili eta aplikatzea eskatzen duten egoerak identifikatzen ditu.
- Planoak eta eskalak interpretatzen ditu eta maketak eskalan sortzen ditu, bertan egoki orientatuz.
- Gorputz geometrikoak eta forma lauak antzematen ditu inguruko figura, gorputz eta espazioetan euren ezaugarriak deskribatuz.
- Zenbait parametro estatistiko kalkulatu eta kalkulagailua zein berezko softwarearekin eta estatistika-grafiko errazak gauzatu dituzten informazioa laburtua eta antolatua adieraziz.
- Zorizko gertaera bakunen gaineko aukeraren konjeturak eta probabilitatearen estimazioak egiten ditu.
- Bizitza gertuaren gaineko problemak identifikatu eta planteatu dituzten eta ezagutza eta baliabide matematikoekin ebazten ditu.
- Estrategia heuristikoa pertsonalak garatu eta aplikatu dituzten (entsegu-errorea, eskema bat burutzea, marrazki bat, atzetik hastea...) baita arrazoinamendukoak ikerketetan eta bere mailako konjeturak sortzerakoan ere.

### **Zientziarako kompetentzia**

Zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak erabiltzea askotariko testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.

- Zientziaren oinarrizko kontzeptuak mundu naturalaren sistemekin eta prozesuekin elkarlotzen ditu.
- Zientziaren datu, gertaera eta prozedura garrantzitsuak antzematen eta deskribatzen ditu, eta azalpen zientifikoak eta problemak ebazteko aplikatu ditu.
- Errealitatearen interpretazio zientifikoak eta ez zientifikoak bereizten ditu, eta zientziak enpirikoki baieztagarriak diren iragarpenak egiten dituela onartzen du.
- Zientzia gaiei buruzko informazio garrantzitsua bilatzen, aukeratzen eta interpretatzen du, modu aktiboan eta kritikoan, hainbat hizkuntza eta inguruetan.

- Naturako sistemak eta fenomenoak azaltzen ditu, eta haien portaera iragartzen du zientzia ezagutza baliatuz.
- Informazioa eta azalpena ematen duten mezuak eta testuak garatzen ditu; bertan, zientzia ezagutzak aplikatzen ditu gertaerak interpretatzeko edota hipotesi jakin bat justifikatzeko.
- Zientzia izaera duten problemak identifikatzen eta ebazten ditu, modu kualitatiboan nahiz kuantitatiboan.
- Zientzia izaera duten ikerkuntza dokumental eta esperimental txikiak egiten ditu.
- Zientzia jarduerari lotutako jarrerak ezagutzen, baloratzen eta erakusten ditu, eta problemak ebazteko eta ikerkuntzak egiteko aplikatzen ditu.
- Garapen iraunkorra bultzatzen duten proposamen koherenteak egiten ditu, gizakiaren ekintzak mundu naturalari eragindako aldaketak kontuan hartuta.
- Osasun-aztura eta bizimodu osasungarriak sustatzen dituzten jarrerak erakusten eta garatzen ditu.
- Ikerkuntza zientifikoaren garrantzia eta haren aplikazioak ongizatearen gizartean justifikatzen ditu.

### **Teknologiarako kompetentzia <sup>1</sup>**

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz garatzea eta erabiltzea da, jakintza teknikoak eta beste adar batzuetakoak metodikoki eta eraginkortasunez aplikatuta, egoera interesgarriak ulertzeko eta konpontzeko eta produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta emaitzen berri ematea, hobetzeko edo erabakiak arduraz hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

- Teknologia proiektu sinpleak diseinatu eta planifikatzen ditu.
- Zenbait materialek izango duten erantzuna aurreratzen du eta hipotesiak egiten ditu.
- Egitura sinpleak eraikitzen ditu eta zirkuitu elektrikoak edo hezkuntzako robotika elementuak txertatzen ditu.
- Tresna eta aplikazio digitalak modu eraginkorrean erabiltzen ditu
- Produktua sortzeko prozesua eta emaitza ebaluatuen ditu

### **Kompetentzia sozial eta zibikoa**

Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko

---

<sup>1</sup> *Kompetentzia hau batez ere Naturaren Zientziak arloaren bidez garatzen da.*

egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta askotarikoa lortzeko bidea urratzearren.

- Ulertzen du norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela.
- Askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan) aritzen eta antolatzen da.
- Ezagutzen du norberaren gizartea eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua (lurraldea, antolaketa...)
- Gai da iraganaren kontzientzia hartzeko eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoan aurrean modu positiboan jarduteko gai da.
- Bizi duen inguruneaz jabetzen da eta konpromisoa eta elkartasuna adierazten du.
- Aintzat hartzen du garaiko gizartearen aniztasun soziala eta kulturala.
- Gai da gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzeko.
- Giza eskubideak norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertsaltzat jotzen ditu.
- Herritar gisa dituen eskubideak erabiltzen ditu eta betebeharrak betetzen ditu.
- Balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko parte-hartzea, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzen ditu.
- Historian zehar bizikidetzaren tentsioak eta -gatatzak izan dituzten gizarte-taldearen konfigurazio edo egitura ezagutzen du.
- Gatatzak ebazteko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen ditu.
- Iraganeko gertatukoaren inguruko kontzientzia kritikoa du.
- Munduaren errealitatea (alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak) ulertzeko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ditu.

### **Arterako kompetentzia**

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nor bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

- Loturak ezartzen ditu erantzun artistikoetan erabiltzen dituen baliabideen eta horiek duten adierazteko eta/edo komunikatzeko asmoen artean.
- Bilatzen ditu bere adierazpen- eta komunikazio-xedeekin bat datozen erreferenteak eta ideiak bai ingurunean, bai ekoizpen artistikoetan eta bere ekoizpenetan txertatzen ditu.
- Teknika, baliabide eta konbentzio egokiak erabiltzen ditu bere ekoizpenetan unean-unean dituen premia espresibo eta komunikatiboetarako.
- Sormenez adierazten ditu, arte-adierazpenen bidez, zenbait ideia, gertaera, esperientzia eta bizipen.
- Arte-ekoizpenak garatzen ditu hizkera artistikoak modu arrazoituan erabiliz.
- Lotzen ditu hainbat ekoizpen artistikoren ezaugarri nabarmenak momentu historiko edo kulturalekin.
- Arteen nahiz produktu kulturalen funtzio eta erabilera batzuk identifikatzen ditu, garai eta testuinguru kultural jakin batzuetan.
- Gertaera artistikoak hainbat gizarte eta garaitako kulturen zati direla ulertzen du.
- Melodiak, dantzak eta gure kulturako bestelako adierazpen artistikoak identifikatzen ditu.
- Gurean ohikoak ez diren espresibide estetikoak baloratzen ditu eta beste pertsona batzuen adierazpen legitimotzat hartzen ditu.

### **Konpetentzia motorra**

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalen ongizatea lortzen laguntzeko.

- Oinarrizko gaitasun eta trebetasun fisikoak askotariko ingurunetan garatzen ari da, arian-arian jokabide motor autonomoa lortzen duelarik.
- Banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak, espresiboak eta zenbait kirol maiztasunez praktikatzen ditu.
- Euskal zein beste kulturetako joko, jolas, dantza eta kirol praktikaren bitartez bere baliabide motorrak aberasten ditu eta norberaren kultura-nortasuna ezagutzen du, kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartuz.
- Arazo motorrak konpontzen ditu estrategien ezagupenaren eta erabileraren bidez.



- Gorputza naturaltasunez edo intentzios erabiltzen du eta sormena, afektua eta ulermena adierazten ditu.
- Bizitza aktiboak eta elikadura orekatuak osasunari dakarzkieten onurak identifikatzen eta bilatzen ditu.

## **5.- Oinarrizko kompetentzien eskuratze-maila baloratzeko prozedura**

### **5.1. Nola identifikatu lorpen-maila**

Hezkuntza Sailburuaren Aginduak garatu egiten du abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren <sup>2</sup> 36. artikuluan ikasleen ebaluazioari buruz adierazitakoa. Agindu horrek hau ezartzen du: *"Eskola-orientazioaren banakako txostena. 1.- Tutoreak, taldeko irakasleen laguntzaz, eskola-orientazioaren banakako txostena egingo du, familiei informazioa eta ikasleei aukeren gaineko orientabideak emateko. Txosten hori gutxienez behin egingo da Lehen Hezkuntza amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzen direnean ere; adibidez, mailaz ez igotzean. Txosten horiek guztiak konfidentzialak izango dira. 2.- Lehen Hezkuntzaren amaierako eskola-orientazioaren banakako txostenean adieraziko da kompetentzien eskuratze-maila; bereziki, ikasle bakoitzaren hezkuntza-aurrerabidea gehien baldintzatzen dutenak, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran banakako arreta bermatzeko garrantzitsutzat jotako alderdiak ere".*

Beraz, irakasle-taldeak du bere taldeko ikasleen kompetentzia-maila ebaluatzeko azken ardura. Hartzen dituzten erabakiak etapa amaieran eskola-orientaziorako txosten indibidualean jarriko dira eta zehar-kompetentzien eta diziplina-kompetentzien lorpen-maila adieraziko da, hasierakoa, ertaina edo aurreratua termikoekin.

4. atalean zehazten den adierazleen zerrendak oinarri gisa balio du irakasle-taldeak erabakiak hartzeko.

Ikasle bakoitzak duen oinarrizko kompetentzien garapen maila zehazteko, dokumentu honetan jasotzen diren adierazleez gain, honako irizpide hauek har daitezke kontuan:

- hasierako mailan dagoen ikasleak jardun-maila eskasa du kompetentzien adierazleen erdietan baino gehiagotan; nahiz eta beste adierazleren batean edo jardun ertaina edo aurreratua izan.

---

<sup>2</sup> <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf> 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

- maila ertainean dagoen ikasleak behar besteko jarduna erakusten du konpetentzien adierazleen erdietan gutxienez; nahiz eta beste adierazleren batean maila apala edo aurreratua erakutsi.
- maila aurreratuak adierazten du ikasleak jardun altua erakusten duela konpetentzien adierazleen erdietan gutxienez; nahiz eta beste adierazleren batean hasierako jarduna edo ertaina izan.

Barne prozedura gisa, ponderazioak erabiltzen badira erabakiak hartzen laguntzeko, horrek ez du, inola ere, irakasleen koordinazioa ordeztu behar ikaslearen oinarrizko konpetentzien balorazioa adosteko.

## **5.2. Nola jardun ebaluazio-saioan**

Azken ebaluazio-saioaren aurretik, irakasle bakoitzak ikasle bakoitzaren balorazioa egingo du. Balorazio horretan, zehar-konpetentzia guztiak eta irakasleak lantzen duen arloari lotutako diziplina-konpetentzia hartuko dira kontuan. Arloen eta konpetentzien arteko erlazio hori erabakitzeko, kontuan izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeari buruzko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak<sup>3</sup> xedatutakoa.

Horretarako, irakasleak kontuan izango ditu gida gisa eskainitako konpetentziak ebaluatzeko lorpen-adierazleak. Adierazle horiek (etapa osorako balio dute) ez dira elementu soltetzat jo behar, baizik eta etapako arlo guztietan eta bakoitzean txertatuta dauden osagaitzat, eta maila bakoitzean aurreikusitako helburuekiko modulatu/egokitu behar dira.

Irakasle-taldeak, amaierako ebaluaziorako elkartuta, bere taldeko ikasle bakoitzaren oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila baloratuko du. Balorazio horrek eskatzen du oinarrizko konpetentzia guztietan, bai zeharkakoak bai diziplinakoak, akordioak egitea. Kasu batean edo bestean akordioak egiteko modua desberdina da:

- Oinarrizko zeharkako konpetentzien ebaluazioak irakasle guztiak inplikatzeko ditu, denak maila berean.

Gehiengoak (gutxienez, ebaluazio-taldearen bi heren) ados badago ikasle batentzat zehaztutako mailarekin, hori izango da konpetentziaren behin betiko balorazioa. Gehiengo horretara iritsi ezean, aurkako balorazioak argudiatuko dira adostasuna lortu arte.

---

<sup>3</sup> <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf> 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

- Oinarrizko diziplina-konpetentzien ebaluazioan bi egoera desberdin daude. Konpetentzia batzuetan konpetentzia horrekin zuzenean erlazionatutako ikasgai bakarra dago; adibidez, konpetentzia motorra. Kasu horietan, arloko irakasleak egingo du balorazioa. Aldiz, oinarrizko diziplina-konpetentzia batek hainbat arlo biltzen baditu, arlo horiek lantzen dituzten irakasleek egingo dute balorazioa. Bat egiten ez badute, beren ikuspuntuak azalduko dituzte adostasuna lortu arte.

Balorazio hauek behin betikoak izango dira, salbu irakasle-taldearen gehiengo handi bat (gutxienez ebaluazio-taldearen bi heren) ez badago ados; kasu horretan, jarreraren zergatia azaldu beharko da, ados jartzea lortu arte.

Irakasle-taldeak oso kontuan izan beharko du diziplina-konpetentziaren eskuratze-mailaren eta konpetentzia horrekin zuzenean erlazionatuta dagoen arloan edo dauden arloetan ikasleak lortutako kalifikazioen arteko koherentzia.

Era berean, irakasle-taldeak kontuan izan beharko du oinarrizko konpetentzien garapen-mailaren eta mailaz igarotzeko erabakiaren eta hurrengo mailan laguntza edo errefortzua behar bada hartu beharreko neurrien inguruko proposamenaren arteko koherentzia.

Ikastetxeen ardura da, zuzendaritza-taldea eta bereziki ikasketaburua buru izanik, ikasleen amaierako ebaluazio-prozesuaren barruan, oinarrizko konpetentzien garapen-mailaren edo eskuratze-mailaren balorazioari dagokionez, amaierako erabakiak hartzeko ezinbestekotzat diren denborak, guneak eta tresnak era egokian antolatzea.